

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko urriaren 20a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Leitza • Udazkenerako kultur ekitaldien zakua bete-betea dator
Maria Jesus Iturralde • «Bihotzez Paraguaikoak hemengoak baino hobeak dira»

Ziudadelan artea sartzea

• MIKEL SAIZ



• MIKEL SAIZ


Iruñeko Ziudadelan artea aspalditik sartu zen. Baina are gehiago sartzea nahi dute. Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala eta Beaumont Fundazioa, asteotan, buru-belarri ari dira Ziudadelan Nafarroako Arte Garaikideko Zentroa paratzeko hitzarmena aitzina eramateko. Baina beste batzuek haratago joan nahi dute oraindik; arte garaikideari ez ezik Ziudadelan beste hainbat kulturguneri tokia egiteko proposamena egin berri du EHK, Kontserbatorioari edo Antzerki Eskolari esaterako.

Leitza ●

Udazkeneko zakua bete-betea

Hamaika kultur ekitaldi antolatu dituzte leitzarren gozamenerako

Udazkenean ohi da gaztain batzuk erre eta sutondoan gelditzea, hotza sumatzen hasten den egun horietan. Baina, dirudenez, hemendik aurrera nahi duena besterik ez da aspertuko sukaldeko zuloan. Izan ere, Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak eta Mendibil taldeak ikasturte berrirako aisialdirako hamaika aukera prest dituzte.



Juanjo Ollasagarre idazleak ipuin ikastaroa zuzenduko du azaroan Leitza. Gaur da izena emateko azken eguna. ● EGUNKARIA

GAUR BERTAN AMAITUKO da epea lehenengo aldiz Leitza antolatu den ipuin ikastaroan izena emateko. Azaroan hasiko da ikastaroa, hamar ordukoa izanen da, lau saiotan banatuta eskainiko da eta saio bakoitzak bi ordu eta erdi iraunen du. Juanjo Ollasagarre Arbizuko idazleak zuzenduko ditu lantaldeak —bat baino gehiago sortuko da behar bada—; izan ere, gutxienez sei lagunek osatutakoak izan behar dira eta, lagun batzuk animatu diren arren, azken momentu arte itxaron dutenek gaur dute izena emateko aukera.

Iaz, ipuinak kontatzeko ikastaroa prestatu zuen Euskara Zerbitzuak eta, esperientzia polita izan zela kontuan izanik,

aurten ere herrian sor daitezkeen ipuin idazleentzat lehen urratsa egiteko bultzada eman nahi die, lehenengo urtean ipuin lehiaketa ere antolatu baituzten eta orduan irabazi ez zutenek zerbait gehiago ikasi eta gero beste aukera izan dezaten.

Bestaldetik, argi ibili behariko dute argazkigintza gustukoa dutenek, Mendibil mendi taldeak argazki kamera nola erabili erakutsi nahi duelako, eta horretarako, bi orduko hiruzpalau saiotan, Pako Zufiarrek basoak, mendiak eta bertan bizi diren piztiei erretratu nola egin behar zaien azalduko du. Urriaren bukarran eta azaroaren hasierako asteetan izanen da, baina hil

honen 26a baino lehen eman beharko da izena, Maimur eta Astiz liburu dendetan. Ikastaroan ikasitakoa erakusteko, urtea amaitu baino lehen argazki lehiaketa antolatuko dute. Lehiaketa irekia izanen da eta, ikastaroan aritutakoez gain, edozeinek izanen du parte hartzeko aukera.

Diaporama proiektzioak ere izanen dira Leitza. Esaterako, gaur zortzi, zineman Iñaki Canpion Hego Ameriketara lau urtetan izandako esperentziez mintzatuko da eta han ateratako diaporamak erakutsiko di-

tu. Emanaldia arratsaldeko zortzietan hasiko da.

Aipatutakoez gain, hamaika ekitaldi prestatuta daude udazkeneko arratsaldeak aprobetxatzeko. Mendibilekoek irteera batzuk ere prest dituzte hil honen 29an Zuberoako Santa-Grazitik Belaguaraino joateko, eta dagoeneko izena emateko paperak jarrita daude ohiko tokietan. Eta, dirudenez, abenduan Nafarroako Pirinioetarako beste bidaia bat antolatu dute.

→ Jon Abril

Iruñea

●
Zaldiko
Maldikok,
hogeituzte

IRUÑEKO ELKARTE EUSKALTzaleen artean, Zaldiko Maldiko izeneko da ezagunenetakoa. Duela hogeituzte sortu zen eta betiko tokian dirau, hots, Ansoleaga karrika bihurri eta meharrean. Alde Zaharrean, alegia. Ez dira estuak izan, ordea, elkarte honen asmoak eta ikusmirak, eta, alde horretatik, txoko min horretatik gogotik saiatu da, saiatu denez, euskararen aldeko itzala zabalitzen baita hiri zaharra inguratzeko duten harresiez kanpo ere. Dagoeneko, hasiak dira prestaketak urteurrena behar bezala ospatzeko eta aukera izanen dugu datozen hilabeteotan horren berri zehatza eskaintzeko. Izan ere, ohiko hitzaldi, mahai-inguru, zinema saio, liburu aurkezpen eta ospakizunetaz landara, ekitaldi bereziak ere antolatu nahi dituzte.

Bitartean, denboraldia hasi berri dute. Berriki bere *Gezurak, gezurak, gezurak* liburu aurkeztu ari baita Iban Zaldia, datorren astean mitologiari buruzko hitzaldia izanen dute eta, lehenengoan ere, euskararen sariak erabaki zituzten. Euskararen sari ona edo *lamien urrezko orrazia* deitutakoa Oinarriak plataformarentzat izan da, *lege berri* baterantz kanpaina antolatzeagatik, eta, sari txarra edo *asto-masto saria* izenekoa Juan Jose Lizarberen Alderdi Sozialistari egokitu zaio, sekulako ahaleginetan baitabil euskararen lege murrizta are gehiago murrizteko, eta, azken hori luza gabe ikusiko dugu.

→ Kike Diez de Ultzurrun

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Kontuak ez dira ateratzen. Ez bila ari denari, ezta bilatu duenaren kontuei begira gertzen garenei. Etxea eta bizitza. Etxebizitza. *Pisua* deitzen diote beste batzuek, eta ez dakit ez ote dituen gauzak egokiago azaltzen. Zama arina, hala ere, garai bateko euskaldunei ezartzen zitzairen prezioarekin alderatuz gero. Etxea eta izena, izena eta etxea gauza bera zirenekoaz ari naiz. Jaio aurretik ez ezik hil ondoren ere zordun ziren, noblezia piztia aseztu baitzen eta dirua ez baitzizaion aski.

Errautesak geratu dira. Garai haietako ezti urrunaren usnan ibiltzen direnek gustura jaso dute herentzia: harmarri bat eta deitura bat. Euskaldun gehienok nekazari lokartu bat daukagu barnean, eta, tarteka, belarrira mintzatuz seduzitzen gaitu: «Zoaz, etzazula erroa usteltzen utzi». Eta joan egi-

Metro koadroak

ten dira asko, ia hutsik egin gabe, asteburuero. Etxea konpontzen dute, «antzinako eran jarri dute dena», esaten du miraz auzokoen etxe aurrean jarrita herritik mugitu ez den bizilagun bakartuak, bizkar emanez landa utziari, belar gaiztoek itxitako bidetari, ur gero eta zikinagoi, itxura suitzarreko landetxe dirdaituari, GR markatu berriaren arrastoei...

Izan badira gure barnean beste itzal edo mamu batzuk, gazteagoak gainera, baina nekazari lokartuarenak itzaltzen ditu gehienetan hainbeste ontzi garbitu zituzten etxeoandreen esku gorritu eta lixiba usain iraunkorrekoak eta koipez zikindutako obreroaren azkazalak, biak solasean sutegi ekonomikoaren ondoan. Ez da harrizkoa gorde izana. Proletarioek ez dute Lord Byronik izan.

Honaino iritsi gara. Hasi da lasterketa, eta denok

abiapuntu bertsua dugula dirudi. Helmugan hainbeste metro koadro. Ideia bat daukagu eta etxe baten forma du. Mendebaldean nágusi da oraindik kro-moa: beheko sua piztuta, besaulkia, pipa, egunkaria eta zakurra ondoan. Alderak izaten ditu: bi komuna, garajea, bi milioiko sukaldea, lur pixka bat...

Gutxi dira erretiratzeko direnak. Etsienak ere soka mota aukeratu nahi izaten du urkatu aurretik. Ongi begiratu gero logikoa da, etxe batek aurreko guztia behar duela uste duenak agur esan nahi baitio munduari. «Garesti atera zait, baina munduak ez dezala berriz nitaz galde». Mundua etxean, eta ni ere bai.

Kontua da kontuak ez direla ateratzen. Metro koadro aferetan ez gara bat etorriko, eta kalera irteteko orduan ere ez. Heriotzak konpontzen omen du dena. Orduan emandako lurrarekin etsi behar.

Donamaria ●

Dorretxeko
lanak,
aitzinerara

Zaharberitze lanak bukatu eta gero Donamariako dorretxearekin zer egingen duten ez dago argi. Agian museoa edo erakusketa aretoa paratuko dute bertan. ● MIKEL SAIZ

Etorkizuna argitu
gabe dagoen
arren, lanen
bigarren aldiari
ekin diote

Jauregia dorretxearen lanen bigarren aldiari ekin diote laster batean, nahiz eta oraindik ez duten argitu etorkizunean zein erabilera izanen duen. Bigarren aldiko lanen aurrekontua 53 milioi pezetakoa da, bi urtean banatua.

DUELA ZAZPI URTE KULTUR Ondare izendatu zutenetik, Donamariako Jauregia dorretxea moldatzeko laguntzak ugaritu dira. Nafarroako Gobernuak Vianako Printzea erakundeak hartuko ditu bere gain konponketa lanetan sortuko diren gastu guztiak, orotara ehun milioi pezeta inguru. Lehendabiziko faseko lanak egin ondotik, etenaldia izan dute zaharberitze lanek, eta orain hasiko diren lanekin erabat bukatuko dituzte. Defentsarako erabilitako dorretxe honetako lehen bi solairuak ukulu eta etxebizitzarako erabili izan ziren, sileria eta harriz egindako paretakin. Harrizko paretan gaine-

an, eta azken bi solairuetan, egurrezko egitura dauka, dorretxearen bereizgarria baita.

Hori guztia konpontzeko, 30 milioi pezeta bideratuko ditu Nafarroako Gobernuak aurten, eta bertze 23 datorren urtean, lanak erabat amaitzeko. Baina Nafarroako Gobernuak baldintza bat paratu zien jabeen lanak egitearen truke. Denbora batez jende guztiari irekitako egoitza izan beharko du dorretxeak, eta hortxe dute arazoa jabeek, ez baitakite erabilera hori nola eman.

Zer egin, argitu gabe Moldatu ondoren, hustu eta eskualdeko erakunderen bati uzteko prest dira etxearen jabeak, baldin eta erabilera orokorrerako baldin bada, eta eurak arduratzen badira gastu guztiez. Hori, ordea, ez da hain erraza, inbertsio handia eskatzen baitu horrek. Hainbat erakunderekin ari dira elkarlanean aukerak aztertzen. Indar gehien hartu duen aukeren artean museo edo erakusgelaren bat paratzearena da, baina proiektua oraindik zehaztu gabe dago, eta egin

beharreko inbertsioak ere mugatuko du lan hori. Kontuan hartu behar da, halaber, Nafarroako Gobernuak ezarritako epearen ondotik (10 bat urtekoa), jabeek etxearen eskubide guztiak berreskuratuko dituztela. Horrek oraindik gehiago zailtzen du egitasmoren bat finkatzea.

Berrikuntza lanak Maite Apeztegia arkitektoaren proiektuari jarraiki egiten ari dira. Lehenagotik ere gisako eraikinetan lanak egindakoa da Maite Apeztegia. Zubietako errotaren proiektua berak egin zuen, eta lan horregatik iaz Hego Euskal Herriko Arkitektoen Elkarteak saria eman zion. Zubietako kasuan, hala ere, bere erabilera lehenagotik zehaztua zegoen, ekomuseoa ezarri baita bertan, errotaren funtzionamendua erakustearrekin batera.

→ Jon Abril

herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Olagarai eta Etxeberritarren elkarretaratzea

Olagarai eta Etxeberritarrek Zuraiden egin elkarretaratzea aipatzen du **Herria** astekariak bere azken zenbakian. Hamaika txokotako lagunak bildu ziren, egun ederra elkarrekin pasatzeko. «Betidanik euskalduna, estakuru gutirekin, edozoin bestetarat hurbilduko da eta lagunekin, ederki iraunen du, baso bat arno eskuan. Hori gauza jakina da. Bainan, gero eta gehiago, ikusten ditugu agertzen gizarte gertakari berri batzu: han hemenka, egiten hasiak dire senide biltzarrak, auzo batasunak, txerri ume edo zikiro jateek

dituzte biltzen ahaideak, auzoak edo adixkideak, hurbiltasunaren aitzekian. Zer erran nahi du olde horrek? elgarretaratzeko beharra!».

«Holaxe gu Olhagaray Etcheverrytarak leinu gaitza gira eta hitz ordu soil baten ondotik, bildu gira 225 jendakari hurbil, irailaren 23an, Zuraiden, Bergara ostatuan. Etorri dira buharmiak bezala, gazter guztietatik: Parisetik, Bordeletik, Tolosa aldetik, Pabetik, zombait Amerikatik eta bixtan da Euskal Herritik. Han ziren, apairu on baten inguruan, aitatxi-amatxiak, se-

nar-emazteak, gizon eta emazte gaiak, anaidi osoak, alargunak eta ezkondu berexiak, haur andana eder batekin, hiritar ta baserritarrak nahastekatuak».

«Nor gira? Ez da gure etorkia ateratze haundietarik! Euskal Herriko jendeak hira eta gure iduriz aski jatorrak. Ikusteko hobeki, gure aintzinekoak, adinekoak, adin nagusikoak gazteekin eta umeak hamabi urte azpikoak, ezarriko ditugu lau mailetan, deituz: arbasoak, zaharrak, helduak eta haurrak».



Xabier Larraburu

Yolanda
planetetan

Euria ari du, eta etxe zuloan sartuta ordenagailuan paratua duen astronomi programarekin gora eta behera egon da, egun hauetan, adiskidea. Telefonoz hots egin dit eta bere aurkikuntzak komentatu nahi dizkit, kristorena dela esaten dit, kristorena. Baina ni pixka bat aztoratua nago, zeren adiskidearen ahotsa triste sentitzen dut, eta udazkenaren eta etxe zuloaren eraginak ez ote diren pentsatzen hasia naiz, berak Planetario informatikoaz hasten denean: programak eguzki sistemaren grafiko bat pantailarazten omen du. Urteetan eta hilabeteetan aurrera eta atzera egiteko aukera ematen dio. Aurrera egingez gero, geldirik dauden planetak bere orbitetan mugitzen hasten dira, eta adiskideak, harriturik, horrela esaten dit: «Izugarria da, aizu! Abiaduren diferentzia ikaragarria da! Eguzkitik hurbilen dagoen Merkuriok, esate baterako, ziztu bizian mugitzen da eta guretzat hiru hilabeteak direnak berarentzat urtebete da; buelta osoa ematen baitio eguzkiari. Urrutiko planetak, ordea, mantso-mantso mugitzen dira, eta lurra urtea osatzen duenerako beraiek orbitaren ehuneko bosta besterik ez dute egiten, igual ezta beraien «hilabete» bat ere!, eta guretzat urte osoa igaro da!, eta Merkuriorentzat, al-diz, bost «urte»!, eta, klaro, komatxozen zeinua jarri beharra daukat zeren «urtea» ez da neurri zehatza eta gure «urtea» Merkurioren bost dira eta Neptunoren zero!».

Adiskidea bero-bero ari da telefonoaren bestaldean, eta ahotsa gero eta apurtuago dauka, marantatuago entzuten diot. «Eta... beno... denboran atzera egin dezakedanez, atzera eman diot botoiari eta planetak urteetan atzera egiten hasi dira, 99, 98, 97...». Orain ahotsaren tristezia ulertzen hasia naiz. Adiskidearentzat udazkena trafikoa istripu baten urtemuga izan baita azkeneko hiru urte hauetan. Eta ni konturatu orduko negar-zotinak hasten dira telefonoaren bestaldean: «...eta 1997ko urriaren 20an gelditu ditut planetak. Yolanda Andoainen hil zen egunean. Irudi hori inprimatu eta paretan jarri dut. Ezin dezakezu imajinatu ere zein neutraltasun bortitza islatzen duen irudiak».


Artearen Zitudadela



Arte Garaikideko Zentroaren karrera, Zitudadela emanen zaion erabilerari buruzko ebaketa sortzen ari da

Iruñeko Zitudadela dagoena baina arte gehiago sartu nahi dute. Nafarroako Gobernua, Iruñeko Udala eta Beaumont Fundazioak asteotan burubeltari ari dira Zitudadela Nafarroako Arte Garaikideko Zentroa parartzeko hitzarmena aitzina eramateko. Baina beste batzuek haratago joan nahi dute oraindik. Arte garaikideari ez ezik, Zitudadela bestelako kultur guneen tokia egiteko proposamena egin berri du EHk.

Labea deritzon eraikinak hainbat erakusketa hartzen dituztenak. Batek edo besteek «Zitudadela gutietsia» dagoela uste dute. Behean Mistoen pabilioia. Gisa horretako beste hainbat eraikin daude Zitudadela, erabiltzeko egokiak
 ● MIKEL SAIZ



DUELA HILABETE BAT NAFARROAKO GOBERNUAK Zitudadela Arte Garaikideko Zentroa parartzeko akordioa onartu zuen. Zentro horren iturburua Josefa Huarteren Beaumont Fundazio pribatuaren arte fondoa litzateke, berrak egin baitzuten Zentroa sortzeko eskaintza. Baina negoziazio honetan bada hirugarren oin bat, Iruñeko Udala, Zitudadela jabea. Duela bi aste UPNko Gobernu taldea saiatu zen akordioa Udaleko osoko bilkuran onartzen, baina beste talde politikoek atzera bota zuten. Akordioaren onarpena atzoko osoko bilkuren eguneko aztergaien zerrendan zegoen, baina lerrok ezin izan dute bildu atzokoa erabakirikoa.

Gobernua, Udala eta Fundazioaren proiektuaren aurrean, Iruñeko EH taldeak beste proposamen bat egin zuen duela aste batean. Zitudadela Artearen Hiri bilakatzeko proposatu du eta arte garaikidea jasotzeko batera, bestelako kultur guneak ere biltzea, hala nola, Pablo Sarasate Kontserbatorioa, Nafarroako Antzerki Eskola eta Arte Ederretako fakultatea. EHk egin kalkuluen arabera, Zitudadela badira 30.000 edo 40.000 metro koadro erabilgarri eta eraikigarri. Eta EHk dioenez, euren proposamena bideragarria da.

Aurrekariak

Arte garaikideko museoak sortzeko asmoa aspalditik egi dator, EHkoek esplikatzen dutenez. 1968an Javier Morras eta zenbait gazte artista elkartu ziren eta halako museo bat sortzeko beharra agertu zuten. Gauza bera gertatu zen 1971ko Iruñeko artistikoen espeserriko. Eta 1983an, Erriberriko Festibalen gertzepe-ara, arte garaikideko museoak sortzeko aukera eztabaidatu zen. Pedro Manterola, Pedro Salaberri, Mariano Roy, Jose Ramon Anda eta Xabier Balda artistek egin zuten proposamen finko bakarra. Saio horien guzian ostean, azkenean, arte garaikideko

erreakzioak



Roberto Urtasun • Arkitektoa

«Hirigintza proiektuak gizarteratzen dira dena eginda dagoenean»

► Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko Nafarroako lehendakari Roberto Urtasunen aburuz, hirigintza proiektuak gizarteratzeko badira sistema batzuk ezarriak, erakusketa publikoa kasu, baina legala denaz baino haratago joan beharko litzateke. «Jendeak ez du Buletin Ofiziala irakurtzen, eta txosten administratibo bat aztertzea zertxobait konplexua da», erran du. «Proiektuak gizartera ailegatzea falta da. Kontua ez da gauza guztiak denon artean egitea, batzurrean. Baina jendea zerbait errateko aukera eman behar zaio horretarako astirik dagoenean. Normalean, dena eginda dagoenean gizarteratzen dira gauzak, eta iruditzen zait alde aurreko eztabaida publikoa egin behar dela».

Urtasuni ongi iruditzen zaio Zitudadela arte garaikideko zentroa egitea, baina, era berean, onartu du horri buruz dakien guziaz prentsan irakurri duela. «Elkargoan ez dugu oraindik Zentroaren inguruko eztabaidarik izan», adierazi du. «Dena den, guk ezin dugu iritzirik eman fundazio pribatu bati leku bat emateko kontu horretaz. Gehienez ere, aktuazio fisikoari buruz hitz egin dezakegu, dauden eraikinen erabileraz edota berriak egiten ote diren. Eta lehiaketaren bat baldin bada, elkargoa saiatuko da, beti bezala, haren gardentasuna bermatzen».



Patxi Larrea • Antzerki irakaslea

«Lasai asko eraman daiteke antzerki eskola Zitudadela»

► Nafarroako Antzerki Eskolako egoitza berria Zitudadela egokitzea proposatu du EHk. Eskolako idazkari teknikoa Patxi Larreaki higitu ongi iruditzen zaio hori. «Orain dugun egoitza hobetze aldera egiten den guziaz ongi dago», adierazi du. «Eta antzerki eskola kultur zentro handiago baten barnean sartzeko aukera iruditzen zait. Kulturak denon eskura egon behar du eta Zitudadela toki arras egokia da horretarako. Lasai aski joan gintezke horra».

Larreak dioenez, Nafarroako Antzerki Eskolak beste egoitza bat behar du. «Egoitza honek ez ditu klaseak emateko gutiengoak betetzen. Tokia falta zaigu eta, gainera, eraikina erortzen ari da. Teilatua oso-oso gaizki dago. Hau konpondu behar dugu edo beste berri batera joango gara. Edo berria ez den egoitza batean sartzeko bagara, behintzat izan dezala honek baino urte gutiago eta toki gehiago».

Larreaendako, Zitudadela Iruñean gutietsia dago. «Oso espazio polita da, ezin hobea, jendea lasai ibiltzeko, eta, gainera, bertan kultura eta arte eskaintza egiten baduzu, oso ongi dago. Ideia ona da, baina gero gauzatu behar da».

Erakundeen hitzarmena

Hona hemen Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak eta Beaumont Fundazioak Nafarroako Arte Garaikideko Zentroa Zitudadela parartzeko sinatu nahi duten hitzarmenaren zirriborroaren zenbait pasarte:

Adierazten dute
 LEHENA. Beaumont Fundazioak arte garaikideko bilduma garrantzitsua du, Oteiza, Palazuelo eta Tapias bezalako egile entzutetsuen margolan eta eskulturek osatua. Fundazioak, Maria Josefa Huarte Beaumont bere lehendakariaren erabakiaz, bilduma hori Nafarroako ikusleei eta gizarzte osoari erakusteko asmoa du.

Kolaborazio oinarriak
 BIGARRENA. Sinatzaileak bat datoz eta adierazten dute arte zentroa sortu nahi dutela, eta ez museo bat bere adiera tradizionalan. Kultur erakunde dinamikoak sortu nahi dute, diziplina ugariako arte fondogarrantzitsua izateaz batera, artearen ikastun, ikertzaile eta kuriosoentzako garapen gunea izan litezakeena. Horretarako, honako baliabideak izan beharko ditu Zentroak: erakusketa iraukorretarako aretoak; aldi baterako erakusketarako aretoak; hitzaldietarako eta ikus-entzunezkoak pantailaratzeko aretoak; liburutegi espezializatuak; zuzendaritza artistikoa profesionala; denda-liburudenda.

mikoak emateko prest dago Nafarroako Arte Garaikideko Zentroaren eraikitzea, garapena eta mantentzea gauzatzearen.
 HIRUGARRENA. Iruñeko Udalen Fundazioaren ekimenaren berri izan du, eta Zentroa Iruñean paratzea nahi duenez, Zitudadela toki egokia dela onartuz, eraikina Zentroaren esku uzteko konpromisoa hartu du.

LAUGARRENA. Nafarroako Arte Garaikideko Zentroa Zitudadela paratzeko da.
 BOSGARRENA. Erabakitzen da Zentroa garatu, kudeatu eta finantzatzeko instituzio juridikorik egokiena zuzenbide pribatuko Fundazioa dela.
 Fundazioko patronatua hamabi kidetik osatuko dute, Gobernuko seik, Udaleko hiruk eta Beaumont fundaziozko beste hiruk. Patronatuko lehendakaria Hezkuntza eta Kulturako kontseilaria izanen da. Udalak eta Beaumont Fundazioak lehendakariorde bana izendatuko dute.
 Nafarroako Gobernuak, behar izanez gero, Fundazioaren defizita finantziazatuko luke.
 SEIGARRENA. Fundazioa eratu berriak eta Beaumont Fundazioak akordioa sinatuko dute azken honen arte fondoa Zentroaren esku uzteko.
 Beaumont Fundazioak bere artealduen Zentroaren esku utzi nahi dituz baldin eta hitzarmen honetan zehazten diren kokaleku eta funtzionamenduaren gaineko aurreikuspenak betetzen badira.


EHren proposamena

Harresien iragazkortzea
 1- Arte Ederretako fakultatea
 2- Pablo Sarasate kontserbategia
 3- Nafarroako Antzerki Eskola
 4- Arteleku
 5- Liburutegia eta dokumentazio zentroa
 6- Kanpoko espazio eszenikoa
 7- Erakusketa aretoak
 8- Parke botanikoa
 9- Lurpeko pasabidea

ZIUDADELA

GAZTELUGIBELA
 Bolborategia
 Mistoen pabilioia
 Labea
 Atertibidea

IRUÑEA
 Zitudadela



zentroa abian dela dirudi. Zentroa sortzeko modua

baina, ez zaio Iruñeko Udaleko bigarren talde politikoa gustatu. «Prozesuari buelta eman nahi diogu», erran du Carlos Otxoa EHko zinegotziak. «Hitzarmena sinatu nahi dute Beaumont Fundazioarekin eta dena eginda eman nahi digute. Baina guk uste dugu garrantzi honetako kultur eskaintza bat beste modu batean planteatu behar dela. Orain hasi beharko genuke eztabaida publikoa, ideiak plazaratu eta ea zer egin daitekeen».

Litekeena da UPNko Gobernuak EHren proposamenari batera kasurik ez egitea. EHkoek hori badakite, baina euren proposamena egin zuten argitu zuten Artearen Hiriko ideia hori gaitik behera alda daitezkeela, kontua dela gizarteratzen eztabaida sortzea. Eztabaida gora behera, badirudi Zitudadela dagoena baino arte gehiago sartuko dutela. Egun Bolborategia, Mistoen Pabilioia, Armen Aretoa eta Labea erakusketa aretoetan sartzeko dituzte arte erakusketak. Oraindik gehiago sartuko dituzte Arte Garaikideko Zentroa sortuz gero. Nola egiten duten, baina, argitzeke dago.

► Añer Azpilikueta

Zitudadela, gotorleku edo gaztelua?

Gure hiriarren erdian dagoen toki hau euskaraz izendatzeko zalantza handiak izan ohi ditugu. Inaki Azkona Iruñeko Udaleko euskara koordinatzaileak berriki gogorarazi duenez, horren inguruko hausnarketa egin ostean, aspaldi hobetsi zuten *zitudadela* hitza erabiltzea gotorlekuaren baitan dagoen zutate tiki hori izendatzeko. Hau da, «*Zitudadela* erakusketa etxek eta haien arteko kale eta belardiak osatzen duten barne eremua da, eta *Gotorlekua* edo, hobe esanda, *Gaztelua* eraikin multzo osoa da, bere harresi eta bere zitudadelarekin». Era berean, *gaztelua* inguratzen duen belardi zabala *Gaztelugibela* litzateke.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Navasko jazarraldiaren inguruko eztabaida

1912an Navasko borrokaldiaren 700. urteurrena zela eta nafar historia mitikoaren osagai garrantzizkoenetakoa zen hau ospatzeko hamaika ekitaldi, ospakizun, argitalpen eta saio berezirik burutu ziren, alabaina eta orain bezala, orduko historialari guztiek ez zuten ber gertaerentzako azalpen berberak, tirabirak erakarri zituen.



Tuterako Antxorena

Juan Antxorena Agirrek (1835-1900) sendi erroak Baztango Berroetan bazituen ere tuterar xaloa genuen. Bi dira Antxorenak idatzi zituen lanak, biak eleberrri historikoak direlarik. Lehenbizikoa, *Lágrimas de una virgen*, Tuteran eman zuen argitara 1856an, eta bere jaioterrian bertan giroturiko liburua dugu. Bizente Ziriza Mosori eskeini lan hau 400 orrialdeko liburutzarra dugu, harpideen artean bakarrik martxoaren 8tik astez aste banatu zena. Bigarren eleberria, berriz, 1859an idatzirik *Zorayda la reina mora* dugu, non printzesa arabiar batek Nafarroako Antso VII.ari zizkion amodioez eta errege honek Afrikan korritu ibilerak jasotzen baitira. Antxorenak XIII. mendeko Rogerio Howden kronikalari ingelesaren teoriak egiten zituen bere Antso Azkarraren inguruan, aurretik ere, eta neurri apalago batean bazen ere, Moretek egin zuen antzera, Antso VII. erregeak 1196an pairatu zuen eskumikazioa azaltzeko hain zuzen. Antxorenaren eleberria ez zen bera bizi zeno karrikaratu, 1912an zegoen giro aparta aprobetxatuz, Antonio Diaz Castro es-

kolapioak eman zuen argitara Bartzelonako Jose Villamalen etxean, berauk tajutu sarrera pintxo batekin.

Larragako Munarritz

Antxorenak egin zuenaren kontrara, Pedro Lino Munarritz Velasco (1839-1919) historialari eta maisu larragarrak ez zituen gogoko Howdenen teoriak, eta hortaz, ospakizunen urte berean Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Komisioaren Boletinean agertu «Viaje de Don Sancho al Africa» artikuluan printzesaren kontua ipuin itsusi, zentzubako eta gezurrezkoa zela ahalegindu zen esaten. Hauze izan zen, gainera, Munarritzek argitara eman zuen azkenetako lana. Munarritz Velasco Argedasko maisua izan zen luzarpan, eta Monumentuen Komisioko kidea, historialaria, poeta eta pedagogiazko lan guritsuen egilea genuen.

Tafallako Mutuberria

Atanasio Mutuberria tafallarra (1865-1913) gizarte katolizismoaren aintzindaria izan zen Nafarroan. Bera izan zen, besteren artean, Tafallako Nekazal Aurrezki Kutxa 1902an sortu zuena, Nafarroako lehenbizikoa hain zuzen. Alderdi Integristan afiliaturik, partiduak

Nafarroan zuen batzarraren kidea izan zen, baita Tafallako udalean zinegotzia 1906tik 1910era bitartean. Ezer gutxi da Mutuberria jaunak idatzi eta argitara eman zuena, halaz guztiz, eta bizi zelarik egokitu zitzaion 700. urteurrenaren data profintatu nahirik, *Mirando al centenario de las Navas de Tolosa* izenburuko topikoz beteriko lan tipikoa eman zuen argitara hil aitzinetik Iruñeko Aranburu baitan.

Burlatako Huitzi

Aipatu Navasko borrokaldiaren 700. urteurrena ospatu nahian, Nafarroako Diputazioak lehiaketa literario-zientifikoa antolatu zuen. Honen emaitzak hurrengo urteko Monumentuen Komisioaren Boletinean jakinarazi ziren. Hartan, lehiaketaren epaimahaiak Valentziatik jasoriko idazlan baten gaineko aipamen laburra eman zuen, Ambrosio Huitzi Miranda (1879-1973) arabista burlatarrak igorri zuenaz hain zuzen. Epaimahaiak honen kalitatea onartzen bazuten ere, lan honek isiltasuna jaso zuen sari bakarra, izan ere, eta anartean ezezagunak ziren iturri arabiarretan oinarriturik Huitzik propo-



satzen zuen historiaren irakurketak guztiz baitzuen bestelakatzeko ordura arte indarrean zegoena: gutxi ziren Navasera bertaratu nafarrak, are gutxiago Antso erregeak eginikakoa, eta dudarik gabe, Nafarroan gurtzen diren katebegi pusak ez dira uste dena. Huitziren lana, «Estudio sobre la campaña de las Navas de Tolosa», ez zen 1916ra arte argitaratu, eta orduan

Valentzian agertu zen. Lehiaketaren epaimahaiaren erabakiak gogor minberatu zuen burlatarra, eta Nafarroarekin harreman akademikorik berriz ere ez edukitzea erabaki zuen. Hau ez zen naski geroago, eta frankismorik gorrienean, masoia izateaz leporaturik gartzelan eman zituen urteak bezalakorik, alabaina, eta hori ezin da ukatu, etxean jasotzen den erdaina bezain samnik ez da inon sentitzen.

Ziria

• Motxorrosolo •

Grisa

ALIMALEKO LANA GASTEIZKO SINPOSIUMARENAKO. Hizkuntza bainoago lengoaia gailentzen da. Azken honek baitu beltza zuri bilakatzen, zurikeriatan ibili gabe. Gure politikoelek lema dute gidaritzat bide ertzeko eliza nagusi den honetan.

www.egunkaria.com

Maria Jesus Iturralde

☉ MISIOLARIA PARAGUAIN

«Bihotzez hangoak hemengoak baino hobekak dira»



soslaia

● ONDIKOL

Arraiozko Indartea etxean hamar anaia-arreba ziren; Maria Jesus Iturralde zen denetan gazteena, «mimatuena». 1935eko ekainaren 6an sortu zen. Bera oso txikia zenean aita, hil zitzaizen, eta amak lan izugarria egin behar izan zuen haurrak aurrera ateratzeko.

Baztanekin maiteminduta dago, berarentzat ez dago eskualde hau baino politagorik. Etxean gelditzen da gustura leihotik begira eta naturaz gozatzen.

Baina argi du bere tokia Paraguain dagoela, pobreei laguntzen. Zorionez, hiru urtetik behin etor daiteke bere familiarekin egotera.

Txikia zelarik oso pozik bizi zela oроitzen da, oso oroitzapen onak ditu, aziendak bazituzten. Taldean Elizondora, Zigara eta inguruetak herrietara bestetara joaten zen dantzara. «Agarrau» deritzona orduan ere hasi zen, eta besta polit hauetaz anitz oроitzen da. Baztango «hotza» ere batzuetan faltatzen zaio.

BETI IRRIBARREZ DAGO Maria Jesus, ez dirudi bere bizitzan gauza txarrik ikusi duenik, baina Paraguain duten egoeraz gogoratzen denean aurpegia erabat iluntzen zaio.

■ **Nola bururatu zitzaizun misiolari izatea?**

18 urtetan Oharrizko komentuan sartu nintzen. Han sei urte eman ondoren, batxilergoa egin nuen, erizaina izateko. Bordeleko Famili Sakratua ordenean, 20 urte eman nituen kliniketan lanean, Valentzian eta Compostelako Santiagon, Paraguaira joan baino lehenago. Berehala ohartu nintzen hemen jende gehiegi zegoela lanerako eta beste herrialdeetan beharra bazela. Hori dela eta, misiolari bidaltzeko eskatu nuen. Bestalde, banekien osasunaren aldetik ongi nengoela, hori ezinbestekoa baita atzerrira joateko, eta horrela, beldurrez ere, Paraguaira iritsi nintzen.

■ **Nola izan ziren hasierako urte horiek?**

aguantatu eta harek erantzun zidan immunizatu arte euliek ez zidatela bakea emanen. Eta jana? Jesus! Zein txarra, ez genuen argirik ez urik; orain argia bederen badugu. Kilo erdi haragi erosten genuen hiru mojentzat, lau egunerako, eta, bero aunitz egiten zuenez, atean zintzilikatzen genuen gehiagó irauteko.

■ **Eta zein zen herrialdearen egoera?**

Hango jendea oso solidarioa da; gauza gutxi dituzte, baina haien gauzak zureak ere badira. Hona iritsi naizenean bai harritu naizela nola bizi zaretan! Hiru urtetik behin etortzen naiz eta aurten bezalako bizi maila ez dut inoiz ikusi. Han gosea eta pobreak, hemen gehiegi... Mundua arrunt gaizki banatuta dago. Ulertzen dut hemengo egoera ekonomikoak hala izan behar duela, baztandarra naizelako eta badakidalako hemengo jendeak lan aunitz egiten duela. Han lanik ez da eta, gainera, askok lanerako gogo gutxi dute. Halere,

zenbat eta zenbat gizon iritsen diren Asuntzion hiriburura lan bila eta deus gabe gelditzen diren.

■ **Non egiten duzu lan?**

Bi hilabete eman nituen Asuntzionen paperak egiten. Ondotik, Paraguain hegoalde bidali ninduten. Gero, indiarrekin egon nintzen, Chacon. Indiarrek, hori bai dela mixeria! Horiek dira benetan txiroenak! Azkenik, Germania Berrian nago, osasun etxe parrokiak batean erizain. Gure titulua ez dute Paraguain onartzen eta ezingo genuke erietxe publiko batean lanik egin.

☉
«Hona iritsi naizenean harritu naiz nola bizi zaretan ikusirik! Hiru urtetik behin etortzen naiz, eta aurten bezalako bizi-maila ez dut inoiz ikusi»

☉
■ **Nolakoa da zure egun bat?**

Goizeko bostetan jaikitzen gara eta zazpietarako ilara luze bat dugu osasun etxearen atarian. Ezin duzue sinistu miseria handia bada nola hiltzen den jendea han. Orokorreran larruazaleko eritasunak dira nagusien. Eri larrienak 100 kilometrorara dagoen ospitalera bidaltzen ditugu. Eguerdirako 40 bat pertsona pasatu dira kontsultatik. Arratsaldean pastoralara egiten

dugu, katekesia eta abar. Bi hilabetetik behin meza ematera dator apaiza, bitartean «dominikala» deitzen duguna egiten dugu elizan. Jendeak aunitz parte hartzen du. Fede handia behar da han irauteko, baina, hala ere, bihotzez hangoak hemengoak baino hobekak dira. Batek beharra badu denek lagunduko dute; hemen, ordea, arazoren bat baduzu aunitzetan bakarrik gelditzen zara. Hemen jendea aise berekoia dagoa da. Gauza txikiagoak gehiago eskertzen dira, ez baitute besterik ezagutu. Gure bekatua handinahia da.

■ **Paraguain zurekin ez dago euskaldunik. Nola gorde duzu hizkuntza?**

Ni ere harritu nago; ttikitatik ikasi nuen euskaraz eta moja sartu nintzenetik ez naiz ia euskaldunekin egon. Paraguain nire buruarekin egiten dut solas. Dena den, oso harro nago ez dudalako ama hizkuntza galdu. Ez dut denbora handirik hemengoez oроitzeko. Berri txarrak ematen dizkidanenean, orduan bai sufritzen dudala; hain urrun egonik ez dut ezer egiten ahal. Zerbait txarra denean, beti pentsatzen dut kontatu didatena baino larriagoa dela. Halere, bakoitzak badu bere bidea; geronek erabaki dugu zein bizi nahi dugun. Horrek ez du esan nahi maite ez ditugunik, baina bakoitzak bere tokian egoten jakin behar du.

→ Rakes Goñi



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Udazkena. Gora bihotzak!

Euria aspaldikoa dugu, baina azken egunotan hotza ailegatu da eta barne-barnera sartu zaigu, arima ia izozteraino. Gojeldu dira egunak, jaiak amaitu eta oraindik kalimotxoaz izerditan. Arropa piloak gorputzak lurperatu ditu, haragia udaberriko miraria izango da berriro eta bien bitartean... (hasperena).

Ikasturte berriarekin bat, ideia zaharren kutxa arakatu eta gezurren dantzei ekin diegu: sukaldaritza, ingelesa, footinga, masajea eta, denbora balego, aerobic ikastaroa. Aurten, bederen, ikasiago eta argalago bukatu dugu kurtsoa, nahiz eta jakin bi hilabeteren buruan ezerezean geldituko direla oraingo asmo politak. Hurrengo urtean akaso...

Erromerian dantza hasita, asteburuko plana herriaren edo dena delakoaren aldeko gure konpromisoaren arabera antolatu behar denez, atsedena dirako beta eskasa da oso, euskararen (ala ikastolen?) aldeko jaiak hemen, auskalo zeren aldeko (ala kontrako?) manifestazioa hor, eta ziurrenik inoiz burutuko ez diren ekintzak zehazteko amaitezineko bilera han. Eskerrak urteen poderioz gero eta zinikoago bihurtzen garen...

Liburuak pilatzen dira hautsez beteriko mesanotxean, ezta plastikoa kentzeko ere astirik ez izan arren. Iragan aukerazko azokan itsu-itsuan erositakoak ailegatzeko azkenak izan dira: hortaz, metaren gailurra okupatu dute. Eta konturatzerako Durangokoak jota egongo gara, patrika non hustu jakin ezinik. Kulturdepentziaren kontrako departamenduak argi ikusi ditu sintomak, asko konsumitu eta gutxi disfrutatu. Telezaborarren mesederako izanen...

Urteroko guda hasia da, ohetik altxatzearen esfortzua gero eta handiagoa da, etxetik lanera eta lanetik e

txerainoko bidea pilotu automatikoan jarrita dago, euriak blaituko du gogoa eta itogina berpiztuko da, gauak luzeagoak eta bakartiagoak izango dira. Nolanahi ere, erabakia irmoa da: udazken honek ez nau deprimituko.

gure aukerak

MUSIKA

- **Iruñea:** Gaur, Bertsoaroa 2000ren baitan, Selektio Kolektiboak bertsoa eta inprobisazioa uztartuko ditu Erraldioen Txokoa, 20:00etan.
- **Tafalla:** Gaur, 22:30ean, Numidia talde multietnikoa Gueserra aretoan izanen da.
- **Zizur Txikia:** Igandean, Nafarroa Oinez bestaren baitan, Su Ta Gar, Berri Txarrak, Asgarth, Oskorri, Numidia, Garraxika, Gorramendi 10, Suhar, Nekez eta Soublind ariko dira, besteak beste.

BERTSOLARIAK

- **Bera:** Igandean, Bittor Elizagoien eta Jexux Mari Irazu ariko dira plazan, 12:00etan.
- **Iruñea:** Asteazkenean, Bertsoaroa 2000ren baitan, Jokin Sorozabal, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze eta Xabier Legarreta bertsolari gazteek bertso trama osatuko dute Gurutze plazako institutuan, 20:00etan.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Bihar, 12:00etan, Txamuskina taldeak *Kaioa eta katua* haurrentzako lana antzeztuko du Mikael aretoan (Gurutze plazan).
- **Otsagi:** Igandean, 17:30ean, Dorok haurrentzako ipuinak kontatuko ditu, euskaraz, erabilera anitzetarako gelan.
- **Tafalla:** Asteartean, Koldo Amestoik gazte eta helduentzako *Makilargi* ipuina kontatuko du kultur etxean, 20:00etan.
- **Tafalla:** Asteazkenean, Kollins Clown taldeak *Barbantxo eta Txanogorritxo* euskarazko haurrentzako

lana taularatuko du kultur etxean, 18:00etan.

- **Iruñea:** Ostegunean, Tanttaka Teatro taldeak *Novecento ozeanoko pianista* helduentzako lana antzeztuko du Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:30ean.

HITZALDIAK

- **Burlata:** Gaur, 20:00etan, Eguzki talde ekologistako kide Garikoitz Plazaolak *Euskal herritik Euskal hirira* hitzaldia emanen du, gaztelaniaz, Axular kultur elkartearen.

- **Jaurrieta:** Bihar, 20:00etan, Koldo Artola zaraitzueraren inguruan mintzatuko da, gaztelaniaz, udaletxean.

- **Iruñea:** Asteazkenean, Bertsoaroa 2000ren baitan, Jokin Sorozabal, Unai Iturriaga, Aitor Mendiluze eta Xabier Legarreta bertsolari gazteek bertso trama batean parte hartuko dute Gurutze enparantzako institutuan, 20:00etan.

- **Berriozar:** Ostegunean, Unai Iturriaga bertsolari eta idazlea *Berandu da gelditzeko* bere azken eleberriaz solas-

tutako da 20:00etan, gaztetxean (Artekale, 6).

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Urriaren 31n ahituko da Egile Berrientzako XV. Literatur Lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Olerki, narrazio labur, bertso-paper eta komiki modalitateetan hiru sari banatuko dira, 200.000, 120.000 eta 60.000 pezetakoak.

• JOXE LACALLE



Aukeran nahiago

Iragan ostegunean 150 bat espainiar etorri zitzaizkigun turismo egitera. Espainiako Poliziaren babesaz, nahi izan zuten guzia egin zuten. Kolpeak eta atxiloketak betikoek jasan behar izan zituzten. Eta hurrengo egunean Jaime Ignacio del Burgok erran zuen aukeran nahiago zituela Iruñera etorri falangistak herrien subiranotasuna galdegiten duen Arzalluz baino. Del Burgo, baina, urriaren 12an ez zen udaletxe plazan izan. Ez zuen entzun nola falangisten buruak PP eta Mayor Orejaren kontra gogor hitz egiten zuen. Ez zituen entzun kapitalismoaren kontrako oihuak, monarkiaren kontrakoak, Primo de Riveraren aldekoak. Antza, Del Burgok Espainiaren batasun nazionalaren aldekoak soilik entzun zituen. Bejondeiola!